**2020/09/22an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA.**

**SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 22/09/2020.**

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maite Uribe Beristain
Antonio Regaño Sájeras
Josu Ezkurdia Santamaría
Ana Belén de Castro Ramos
Nestor Arana Arexolaleiba
Ander Errarte del Pozo
Iñaki Kerejeta Gorostiza

Idazkaria

Edurne Iturbe Laskurain

Eskoriatzan, 2020ko irailaren 22an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da ohiko bilkuran Udalbatza, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Maria Purificación Regidor Varela, Eluska Irazu Henández eta Dorleta Sologaistoa Agiriano.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 22 de septiembre de 2020, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten María Purificación Regidor Varela, Eluska Irazu Hernández y Dorleta Sologaistoa Agiriano.

## 1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

2020/07/28an egindako osoko bilkurako akta onartu da.

## 2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.

2020ko irailaren 16ra arte hartutako erabakien berri eman da.

Berariaz eman da 11., 12. eta 13. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko Alkate erabakien berri.

Hartutako erabakietako batzuei buruz, Nestor Aranak ondorengo galderak egin ditu:

- Maringo lurrei eusteko obrak zer fasetan daude?
- Atxorrotxeko datazioen proiektua zertan datza?
- Zer gertatu zen Compostela tabernak antolatu nahi zuen sardina-jatearekin?

Josu Ezkurdiak ondorengoa erantzun dio:

1.- Maringo obrei dagokienez, jakinarazi du obrak esleituta eta hasita daudela, ondo doazela eta 2 aste barru amaituta egotea espero dela.

2.- Atxorrotzeko proiektuari dagokionez, jakinarazi du, Aldundiak iaz ezarritako irizpideari jarraituz eta baliabideek hala ahalbidetzen badute, laster ekingo zaiola indusketa gehiago egin beharrean induskatutako guztiari balioa emateari. Irizpide horretatik abiatuta, Sagredok berak planteatu zuen harresiaren zatirik zaharrenean hiru datazio egitea komeni zela. Sagradeok berak adierazi zuenez, horri esker erromatarren garaian gaztelua eraikita zegoela ziurtatu ahal izango da, gaztelua kokatu eta bere historia ezagutu. Adierazi du ere esleipena premiaz egin behar izan zela, datazioak egiteko epe-kontuengatik eta txostena garaiz aurkeztu ahal izateko.

3.- Compostela tabernakoari dagokionez, eskaera abuztuaren erdialdean jaso zela esan du. Adierazi du, zalantzarik ez bazuten ere eskatutako osasun-neurri guztiak hartuko zituztela jabeek, "ez jaiak" eta horien ondorioak komunikabide guztietan hizpide zirela une horretan, eta beldur zirela bertara joandakoek nola jokatuko zuten eta horientzat egon zitekeen arriskuaz, eta horregatik ez zitzaiela baimenik eman.

## 3.- 14. KREDITU ALDAKETA: KREDITU GEHIGARRIAK.

Kredituak aldatzeko 14. espedientea irakurri da. Kreditu aldaketa hori kreditu gehigarri bidez egingo da eta eragina du UDAL honetako aurrekontuan.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Idazkaritza-kontuhartzailetzak egindako txostena ikusita, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamena bototara jarri da, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 14. espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

| Gastuen partida | Azalpena | Kredituak | | |
|---|---|---|---|---|
| | | **Egungoak** | **Aldaketak** | **Behin betikoak** |
| 1 0300.481.230.00.01 2020 | DIRU LAGUNTZA:GIZATE ONGIZATEA | 4.700,00 | 4.000,00 | 8.700,00 |
| 1 0300.481.230.11.01 2020 | DIRU LAGUNTZA:BAZKARI TXARTELA | 300,00 | 500,00 | 800,00 |
| 1 0300.481.231.30.01 2020 | DIRU LAGUNTZA:LARRIALDI PLANA | 50.828,00 | 5.000,00 | 55.828,00 |
| 1 0300.481.231.92.01 2020 | DIRU LAGUNTZA:P.JOSE ARANA.COVID-19 | 0,00 | 4.000,00 | 4.000,00 |
| 1 0500.471.430.00.01 2020 | DIRU LAGUNTZA:ENPLEGUAREN BABESA.COVID-1 | 0,00 | 40.000,00 | 40.000,00 |
| 1 0100.623.323.40.02 2020 | INSTALAZIOAK:LUIS EZEIZA | 0,00 | 24.497,00 | 24.497,00 |
| 1 0100.227.165.00.39 2020 | AZTERKETA,LAN TEKNIKOAK:ARGITERIA PUBLIK | 2.704,35 | 5.000,00 | 7.704,35 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1 0100.212.165.00.01 2020 | MANTENIMENDUA:ARGITERIA PUBLIKOA | 3.117,34 | 14.000,00 | 17.117,34 |
| 1 0300.227.231.10.19 2020 | ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA | 200.000,00 | 15.000,00 | 215.000,00 |
| 1 0100.622.933.00.02 2020 | BESTELAKO ERAIKIN ETA ERAIKUNTZAK | 28.664,83 | 2.000,00 | 30.664,83 |
| | | | | |
| **GUZTIRA** | | 290.314,52 | 113.997,00 | 404.311,52 |

| Kod. | Partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| a | 2 0200.870.000.00.01 2020 | DIRUZAINTZAKO GERAKINA:GASTU OROKORRETAR | 113.997,00 |
| | | | |
| | | **FINANTZAKETA GUZTIRA** | **113.997,00** |

**Bigarrena.-** Jendaurrean jartzea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

ERABAKIA HARTU AURRETIK ESANDAKOAK:

Nestor Aranak esan du ados daudela planteatzen diren jarduera guztiak egitearekin, eta adierazi du kezka bat dutela Aldundiak emandako dirulaguntzarekin egingo den laguntza-programa dela-eta. Merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorea COVID-19ari aurrea hartzeko osasun-produktuak erosten diru asko gastatzen ari dela adierazi ondoren, galdetu du ea mota horretako erosketek ez duten laguntzarik jasoko eta laguntzak inbertsioek edo instalazioek soilik jasoko duten.

Josu Ezkurdiak erantzun dio krisia hasi zenean oso zaila zela norbera babesteko ekipamenduak (gelak, maskarak…) lortzea, eta Udalaren laguntza, batez ere, behar zuenari material hori ematea izan zela. Gaur egun, ekipamendu horiek lortzea nahiko erraza da, eta Udal honen laguntzak beste norabide bat hartzen ari dira, eta hori laster ikusiko da enplegua mantentzeko edo inbertsioak edo instalazioak egiteko dirulaguntzak deitzen direnean. Dirulaguntza horiek ahalegin ekonomiko handia izango dira Udal honentzat, eta, emaitzen arabera, kontuan hartuko da lortu nahi diren helburuak lortzen diren edo beste eremu batzuetan jarduteko beharra ikusten den, eta ez da baztertzen hurrengo urtean beste laguntza-programa bat ateratzea ere.

Nestorrek esan dio badakiela norbait udaletxera etorri dela EPI material eske, eta ezer gabe joan behar izan duela.

Josu Ezkurdiak erantzun dio ez duela horren berri; hasiera batean, stockarekin Udalaren beraren beharrei eta hirugarrenen premiei, betiere premiazkoak badira, erantzutea aurreikusten dela eta azken kasu horretan ez duela esan nahi doan izan behar duenik.

Berriz ere Nestor Aranak galdetu dio ea stockik badagoen. Josuk erantzun dio baietz, baina ez dakiela zenbat, eta hurrengoan, kontu praktikoengatik, beraiengana (EH BILDUri buruz ari da) jo duenak kexatzera materialik eman ez zaiolako, bere taldeko zinegotziren batengana jo dezala zuzenean, bere kexari erantzun bat eman ahal izateko.

**<u>4.- 2019-2023 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEA.</u>**

Udalbatzarrak, 2019ko abenduaren 17an egindako bilkuran, 2020-2023 dirulaguntzen plan estrategikoa onartu zuen.

2020ko ekainaren 18an udalbatzarrak aho batez onartutako "COVID-19aren ondorengo berreraikitze programan" aurreikusitako ekintzetako batzuk martxan jarri ahal izateko beharrezkoa da aipatutako Plan Estrategikoaren eranskinean jasotako zenbait aurreikuspen aldatzea.

Aldaketa horiek honako hauek dira:

A- ONDORENGO PROGRAMETAN AURREIKUSITAKO KOSTUA HANDITZEA:

1. BERAIEN JARDUERA GIZARTE EKINTZETAN EGITEN DUTEN ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK.
2. LARRIALDI PLANA.
3. JANARI BONOAK
4. TRATAMENDUAK JASOTZEKO DIRULAGUNTZAK.

5. ESKORIATZAKO MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZU ESTABLEZIMENDUETARAKO EROSKETA BONUAK.

B.- PROGRAMA BERRIAK SORTZEA ONDORENGO LERRO ESTRATEGIKOETAN:

"3. LERRO ESTRATEGIKOA: GIZARTE EKINTZA"

1. JOSE ARANA: COVID-19aren AURKAKO HIGIENE ETA BABES NEURRIAK

"6. LERRO ESTRATEGIKOA: HEZKUNTZA SUSTAPENA"

2. "KONEKTATU" ZURE IKASTETXEAREKIN

"7. LERRO ESTRATEGIKOA: EKONOMIAREN ETA GIZARTEAREN SUSTAPENA"

3. ENPLEGUAREN BABESA COVID-19ak ERAGINDAKO SEKTOREETAN.

4. COVID-19aren AURKAKO HIGIENE ETA BABES NEURRIAK

Aurrez esandako guztia kontuan izanik, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamena bototara jarri da, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Ondorengo programen kostua handitzea ondoren esango diren zenbatekoetan:

1. BERAIEN JARDUERA GIZARTE EKINTZETAN EGITEN DUTEN ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK. **+ 4000 euros** ( 8.700 €)

2. LARRIALDI PLANA: **+ 20.828 €** ( 55.828 €)

3. JANARI BONOAK **+ 500 euro** ( 800 €)

4. TRATAMENDUAK JASOTZEKO DIRULAGUNTZAK: **+ 2000 euro** (5.000 €)

5. ESKORIATZAKO MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZU ESTABLEZIMENDUETARAKO EROSKETA BONUAK. **+ 30.000 €** ( 36.000 euro)

**BIGARRENA.-** Ondorengo programa berriak sortzea:

"3. LERRO ESTRATEGIKOA: GIZARTE EKINTZA"

**D) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: JOSE ARANA: COVID-19aren AURKAKO HIGIENE ETA BABES NEURRIAK**

**HARTZAILEA:** Jose Arana Fundazioa.

**HELBURUA:** COVID-19aren pandemia dela-eta beharrezko higiene eta babes neurri bereziak ezartzeko materialen erosketa finantzatzea.

**LORTU GURA DENA:** Jose Arana fundazioak ostatu alternatiboa eskaintzen die, inolako irabazi asmorik gabe, zenbait gorabeherengatik beraien etxeetan bizitzen jarraitu ezin duten edo jarraitzerik nahi ez duten adineko pertsonei. Eta Eskoriatzako Udalak intereskotzat jotzen du Fundazioari laguntzea betebehar hauetan: COVID-19aren aurkako babes materiala izatea eta Fundazioaren jarduerarengatik eskatzen zaizkion desinfekzio lanak egitea.

**DIRULAGUNTZA MOTA:** izenduna.

**2020ko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 4.000 euro.**

**FINANTZIAZIOA:** 0300.481.231.92.01

“6. LERRO ESTRATEGIKOA: HEZKUNTZA SUSTAPENA”

**D) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: “KONEKTATU” ZURE IKASTETXEAREKIN**

**HARTZAILEAK:** Eskoriatzako ikastetxeak eta horietan ikasten ari diren Eskoriatzan erroldatutako ikasleak.

**HELBURUA:** Terminalen erosketa, Interneterako konektibitatea edo biak finantzatzea Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleek ikasketak telematikoki egin ahal izan ditzaten COVID-19aren agerraldiren bat izanez gero.

**LORTU GURA DENA:** COVID-19aren ondorioz sortutako kalteberatasun ekonomikoko egoeran daudela egiaztatzen duten ikasleei eten digitala arintzea.

**DIRULAGUNTZA MOTA: izenduna edo deialdi publikoa, bidezkoa dena.**

**2020ko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 5.000 euro.**

**FINANTZIAZIOA:** 0600.781.326.00.01 3.000 € (terminalak)

0600.480.326.00.01 2.000 € (interneterako konektibitatea)

"7. LERRO ESTRATEGIKOA: EKONOMIAREN ETA GIZARTEAREN SUSTAPENA"

**E) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: ENPLEGUAREN BABESA COVID-19ak ERAGINDAKO SEKTOREETAN.**

**HARTZAILEAK:** Jarduera ekonomikoa izan eta COVID-19ak eragindako krisiaren eraginpean dauden autonomoak eta 1etik 10era langile dituzten enpresak.

**HELBURUA:** Eskoriatzan zerga-egoitza duten enpresen jarraipena babestea, langile-kostuaren zati bat diruz lagunduz.

**LORTU GURA DENA:** Enplegua mantentzea Eskoriatzan.

**DIRULAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa.**

**2020ko KOSTUEN AURREIKUSPENA:** 40.000 euro.

**FINANTZIAZIOA:** 0500.471.430.00.01

**F) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA:** COVID-19aren AURKAKO HIGIENE ETA BABES NEURRIAK

**HARTZAILEAK:** Merkataritza, ostalaritza, jatetxe edo beste sektore batzuetako pertsona fisikoak, beren aktibitatea dela-eta pertsona askori arreta eman edota higiene eta osasungarritasun arloko segurtasun-berme osoarekin jardun behar dutenak; eta horrek jendearekin harreman zuzena izatea dakar, oso hurbila eta denboran zehar iraunkorra, eta, horrela, nabarmen handitzen da kutsatzeko arriskua.

**HELBURUA:** COVID 19aren pandemia dela-eta jendeari arreta emateko establezimenduetan ezarri beharreko higiene eta babes neurri berezi berriekin lotutako inbertsioak finantzatzen laguntzea.

**LORTU GURA DENA:** Establezimenduetako langileen eta bezeroen segurtasuna eta osasuna bermatzea.

**DIRULAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa.**

**2020ko KOSTUEN AURREIKUSPENA:** 18.651 euro.

**FINANTZIAZIOA:** 0500.771.430.00.01

**5.- ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTZEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA (DERRIGORREZKO ZERBITZUAK ETA AUKERAKO ZERBITZUAK) EMATEKO KONTRATUARI ERANTZUTEKO 2014an AURKEZTUTAKO ABALA ITZULTZEA.**

CESPA, COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A. eta ELAI SERBITZUAK S.L. enpresek aldi baterako osatutako elkarteak BANCO SANTANDER S.A. banketxeak emandako abala jarri zuen 2014/12/23an. Abal hori ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTZEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA emateko Udalbatzarrak 2015eko urtarrilaren 27an hartutako erabakiz esleitutako kontratutik sortutako betebeharrak zuzen beteko ziren berme bezala jarri zen

Abal hori kitatzeko baimena eskatu zuen enpresa elkarteak 2020/07/29an.

Hirigintza, Mugikortasun eta Ingurumen batzorde informatzaileak egindako diktamena ikusita, Udalbatzarrak, bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** BANCO SANTANDER S.A. banketxeak COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A. eta ELAI SERBITZUAK SL enpresek aldi baterako osatutako elkartearen alde emandako 5.339,56 euroko 1500/987.510 zenbakiko abalaren kitapena baimentzea. Abala ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTZEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA emateko kontratutik sortutako betebeharrak zuzen beteko ziren berme bezala jarri zen.

**Bigarrena.-** Aipatutako abalaren originala interesdunari ematea abalaren kitapena izapidetu dezan.

**6.- ESKORIATZAKO UDALAREN TITULARITATEKO HAINBAT UDAL ERAIKIN ETA LOKAL GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA ALDATZEA.**

Eskoriatzako Udalaren titularitateko hainbat eraikin publiko eta udal lokal garbitzeko zerbitzuaren administrazio-kontratua 2020ko martxoaren 25ean formalizatu zen Hemen Garbiketak, S.L.U. merkataritza-sozietatearekin, 138.052,60 euroko prezioan (Balio Erantsiaren gaineko Zergarik gabe) eta urtebeteko iraupenarekin, kontratu hori berariaz 4 urtez luzatzeko aurreikuspenarekin.

2020ko martxoaren 25ean, Eskoriatzako Udalaren titularitateko hainbat eraikin publiko eta udal lokal garbitzeko zerbitzuen administrazio-kontratua formalizatu zen Hemen garbiketak, S.L.U. merkataritza-sozietatearekin, eta Udalbatzar honek kontratu hori interes publikoko ondorengo arrazoiengatik aldatzeko beharra ikusi du:

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak honakoak ezarri ditu: batetik, "Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan KORONABIRUSen (SARSCoV-2) AURREAN 2020-2021 IKASTURTEAN JARDUTEKO PROTOKOLO OROKORRA" eta, bestetik, "Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEko

ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko, 2020/2021 ikasturtea".

- Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak "2020ko DENBORALDIAN IGERILEKU-INSTALAZIOAK IREKI ETA MANTENTZEKO IRIZPIDE SANITARIOAK" ezarri ditu, bai eta horien ondorengo eguneraketak ere.

- Eskoriatzako Udalak COVID-19ari aurre egiteko hainbat kontingentzia-plan zehaztu ditu udal eraikinetan.

Hasieran kontratatutako zerbitzuei zerbitzu gehigarriak gehitu behar zaizkienez, bi baldintza hauek betetzen dira:

1.- Kontratista aldatzea ezinezkoa izatea arrazoi ekonomiko edo teknikoengatik, eta, era berean, kontratista aldatzeak eragozpen nabarmenak eragitea edo kostuak nabarmen handitzea kontratazio-organoari.

2.- Kontratua aldatzeak, berak bakarrik edo Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL 2017) 205. artikuluaren arabera adostutako beste aldaketa batzuekin batera, ez ekartzea kontratuaren zenbatekoan hasierako prezioaren % 50 (BEZik gabe) gainditzen duen aldaketarik.

Eta hori horrela da ondorengoengatik:

1.- Beste kontratista bat sartuz gero, oso zaila izango litzateke bi kontratistek egindako lanen jarraipena egitea, lan horiek bereizteari dagokionez. Gainera, biltegiaren eta garbiketa-materialaren erabilera, giltzak, erantzukizunak, solaskidetza… kudeatu beharko lirateke; eta, bestalde, prezioak lizitatuta daude eta lehiakortzat jo dira.

2.- Kontratuaren aldaketari dagokionez, aldaketa % 15, 70koa izango dela kalkulatu da.

Kontuan hartu beharrekoak:

COVID-10 pandemiak sortutako egoeraren aurrean egin beharreko aldaketak enpresa kontratistarekin negoziatu dira.

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen – SPKL 2017 – 203. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoa, eta, bereziki, administrazio-klausula zehatzen agirian aurreikusi gabeko aldaketen araubidea (SPKLren 205 art.), *aurreikusi ezin diren inguruabarrengatiko aldaketa* baita.

Aldatzea proposatzen den kontratu honen kontratazio organoa Udalbatzarra da.

Horiek horrela, eta Hirigintza, Mugikortasun eta Ingurumen batzorde informatzaileak egindako diktamena ikusita, Udalbatzarrak, bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Eskoriatzako Udalaren titularitateko hainbat eraikin publiko eta udal lokal garbitzeko kontratuaren aldaketa, baldintza administratibo partikularren agirian aurreikusi gabeko egoeragatik, ONARTZEA 2020ko urriaren 1etik aurrerako ondorioekin. Aldaketarekin hasieran kontratatutako zerbitzuei honako zerbitzu gehigarri hauek gehituko zaizkio:

**Luis Ezeiza (lehen hezkuntzako eraikina).** Honako hauek garbitzea eta desinfektatzea proposatzen da: jolas-orduan, eguerdian eta arratsalde-gauean, bainugelak eta pasabideak; eguerdian, irakasleek adierazitako 3 gela, ekitaldi-aretoa, harrera-gela eta isolamendu-gela (erabiltzen denean); eta, gainerako espazioak, arratsalde-gauean. Lan horietarako aparteko 806,5 ordu egin beharra kalkulatzen da, 19.126,95 euroko kostua (BEZa barne) izango lukeena.

*Luis Ezeiza (haur hezkuntza-liburutegia eraikina). Honako hauek garbitzea eta desinfektatzea proposatzen da: jolas-orduan, eguerdian eta arratsalde-gauean, bainugelak eta pasabideak; eguerdian, psikomotrizitate-gela; eta, gainerako espazioak, arratsalde-gauean. Lan horietarako aparteko 198,5 ordu egin beharra kalkulatzen da, 4.707,63 euroko kostua (BEZa barne) izango lukeena.*

*Kiroldegia. Honako hauek garbitzea eta desinfektatzea proposatzen da: goiz erdian, eguerdian eta arratsalde-gauean, komunak, aldagela eta pasabideak; eta, gainerako espazioak, arratsalde-gauean. Lan horietarako aparteko 205,5 ordu egin beharra kalkulatzen da, 4.873,64 euroko kostua (BEZa barne) izango lukeena.*

*Helduentzako eskola. Lokal osoa astelehenetik ostegunera garbitzea eta desinfektatzea proposatzen da. Lan horietarako aparteko 22 ordu egin beharra kalkulatzen da, 521,75 euroko kostua (BEZa barne) izango lukeena.*

*Tren-geltoki zaharra. Komunak, aldagelak eta pasabideak egunero garbitzea eta desinfektatzea proposatzen da. Lan horietarako aparteko 59 ordu egin beharra kalkulatzen da, 1.541,54 euroko kostua (BEZa barne) izango lukeena.*

**BIGARRENA.-** Zerbitzu gehigarriei dagozkien ondorengo gastuak onartzea 2020ko ekitaldiko aurrekontuen kargura.

| ERAIKINA | AURREKONTU APLIKAZIOA | ZENBATEKOA |
|---|---|---|
| LUIS EZEIZA IKASTETXEA | 0100.227.323.40.01 | 4.781,74 (BEZa barne) |
| HAURESKOLA | 0100.227.323.30.01 | 1.176,91 (BEZa barne) |
| EPA | 0100.227.326.20.01 | 130,44 (BEZa barne) |
| UDAL BILTEGIA | 0100.227.153.40.01 | 385,38 (BEZa barne) |
| KIROLDEGIA | 0100.227.342.20.01 | 1.218,41 (BEZa barne) |

## 7.- GALDE-ESKEAK.

Nestor Aranak adierazi du gogoeta egin nahi duela saio honetan ikusi duen gauza bati buruz; hain zuzen ere, idazkaria izan ezik, "Mahaian" eserita dauden gainerako kideak gizonak direla. Esan du, COVID-19aren kontu guzti hau gorabehera, ez dela genero-ikuspegia ahaztu behar, eta emakumezko zinegotziei gonbita egin die -osasun distantziak gordetzeagatik publikoa jartzen den eremuan eseri direnei-, beren kargua betetzera.

Josu Ezkurdiak erantzun dio birusak ez duela generoen berri, kasualitatea dela ere EH BILDUko lau zinegotzietatik 2 emakume izatea eta horietako bat ere ez egotea, bere taldearen kasuan dio mahaian daudenak ez daudela gizonak direlako, baizik eta betetzen duten karguagatik, bata alkatea delako eta bestea -bere buruaz ari da-, bozeramailea delako, eta agintaldiaren hasieran erabaki ziren karguak direla; eta "Eskoriatzako elizateak" alderdiaren kasuan, zinegotzi bakarra delako.

Nestor Aranak egoera ulertzen duela aitortu du, baina hausnarketa egiteko balio izatea nahi duela azpimarratu du.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:20an amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

ESKORIATZAKO UDALA alkatetza

JOSE RAMON ZUBIZARRETA ALEGRIA
2021/01/29 22:41:46

ESKORIATZAKO UDALA idazkaritza kontuhartzailetza

MIREN EDURNE ITURBE LASCURAIN
2021/01/29 15:25:23

## 1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.

Por encontrar conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 28/07/2020.

## 2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 16 de setiembre de 2020

De forma expresa se da cuenta de las resoluciones por las que se aprueban los expedientes de modificación de crédiots Nº 11,Nº 12 y Nº 13.

En relación a algunas de las resoluciones dictadas, Nestor Arana hace las siguientes preguntas:

- ¿en qué fase están las obras de contención de las tierras de Marín?
- ¿en qué consiste el proyecto de dataciones de Aitzorrotz?
- ¿qué ocurrió con la sardinada a organizar por el bar Compostela?

Josu Ezkurdia le responde lo siguiente:

1.- En relación a las obras de Marín, informa que adjudicadas e iniciadas las obras van en buen curso y se espera que estén finalizadas dentro de 2 semanas.

2.- En relación al proyecto de Aitzorrotz informa que, siguiendo el criterio fijado por la Diputación el año pasado, lo que en un futuro inmediato se va a abordar, si los recursos así lo permiten, es la puesta en valor de todo lo excavado en lugar de realizar más excavaciones. Partiendo de ese criterio, por el propio Salgredo se planteó la conveniencia de realizar tres dataciones de la muralla en su parte más antigua . Según indicó el propio técnico, ello permitiría poder asegurar que en periodo romano el castillo estaba construído, situar el mismo y conocer su historia. Indica que la adjudicación se tuvo que hacer con premura por cuestiones de plazos para hacer las dataciones y poder presentar el informe en tiempo.

3.- En cuanto a lo del bar Compostela, afirma que se recibió la solicitud a mediados de agosto. Señala que, si bién no dudaban de que por parte de los dueños se adoptarían todas las medidas sanitarias exigidas, eran momentos en los que estaba en todos los medios el asunto de “las no fiestas” y sus consecuencias, se tenía miedo a cómo actuarían los partícipes y al posible riesgo existente para los mismos y que es por lo que no se les dió permiso.

## 3.-MODIFICACIÓN DE CREDITOS Nº 14: CRÉDITOS ADICIONALES

Dada lectura del expediente de Modificación de Créditos Nº14, mediante Créditos Adicionales que afecta al Presupuesto de este **AYUNTAMIENTO.**

Se da cuenta del informe emitido por la secretaria-interventora quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos y

trámites establecidos en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa.

Visto el informe emitido desde secretaría intervención, se somete a votación la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda y, con el voto a favor de todos corporativos presentes , el Pleno ACUERDA:

**Primero.-** Aprobar el expediente de Modificación de Créditos mediante Créditos Adicionales, nº 14 que afecta al Presupuesto de este **AYUNTAMIENTO** del corriente ejercicio, conforme a la propuesta formulada y siguiente resumen por Capítulos:

| Partida de gasto | Concepto | Créditos | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Actuales | Modificación | Definitivos |
| 1 0300.481.230.00.01 2020 | DIRU LAGUNTZA:GIZATE ONGIZATEA | 4.700,00 | 4.000,00 | 8.700,00 |
| 1 0300.481.230.11.01 2020 | DIRU LAGUNTZA:BAZKARI TXARTELA | 300,00 | 500,00 | 800,00 |
| 1 0300.481.231.30.01 2020 | DIRU LAGUNTZA:LARRIALDI PLANA | 50.828,00 | 5.000,00 | 55.828,00 |
| 1 0300.481.231.92.01 2020 | DIRU LAGUNTZA:P.JOSE ARANA.COVID-19 | 0,00 | 4.000,00 | 4.000,00 |
| 1 0500.471.430.00.01 2020 | DIRU LAGUNTZA:ENPLEGUAR EN BABESA.COVID-1 | 0,00 | 40.000,00 | 40.000,00 |
| 1 0100.623.323.40.02 2020 | INSTALAZIOAK:LUIS EZEIZA | 0,00 | 24.497,00 | 24.497,00 |
| 1 0100.227.165.00.39 2020 | AZTERKETA,LAN TEKNIKOAK:ARGITERIA PUBLIK | 2.704,35 | 5.000,00 | 7.704,35 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1 0100.212.165.00.01 2020 | MANTENIMENDUA:ARGITERIA PUBLIKOA | 3.117,34 | 14.000,00 | 17.117,34 |
| 1 0300.227.231.10.19 2020 | ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA | 200.000,00 | 15.000,00 | 215.000,00 |
| 1 0100.622.933.00.02 2020 | BESTELAKO ERAIKIN ETA ERAIKUNTZAK | 28.664,83 | 2.000,00 | 30.664,83 |
| | | | | |
| | **TOTAL** | 290.314,52 | 113.997,00 | 404.311,52 |

| Cod. | Partida | Concepto | Cantidad |
|---|---|---|---|
| a | 2 0200.870.000.00.01 2020 | DIRUZAINTZAKO GERAKINA:GASTU OROKORRETAR | 113.997,00 |
| | | | |
| | | **FINANCIACIÓN TOTAL** | **113.997,00** |

**Segundo.-** Que se someta a información pública por el plazo de quince días a efectos de reclamaciones. De no presentarse reclamaciones este acuerdo devendrá definitivo, debiendo darse a este expediente los restantes trámites iguales a los establecidos para la aprobación del Presupuesto General.

RESUMEN DE INTERVENCIONES HABIDAS ANTES DE ADOPTAR EL ACUERDO:

Nestor Arana, tras decir que están de acuerdo con que se lleven a cabo todas las actuaciones que se plantean, manifiesta que tienen una preocupación en relación al Programa de Ayudas que deriva de la subvención concedida por la Diputación. Tras señalar que el sector del comercio y hostelería está gastando importantes cantidades en la compra de productos sanitarios para prevenir el COVID-19, pregunta si ese tipo de adquisiciones no van a ser objeto de ayuda y sólo lo van a ser las inversiones o instalaciones.

Josu Ezkurdia le responde que cuando dio comienzo la crisis, era muy difícil conseguir EPIs (geles, mascarillas,…) y la ayuda del Ayuntamiento se centró principalmente en facilitar dicho material a quien lo necesitara. A la fecha, la adquisición del mismo es relativamente fácil y las ayudas de este Ayuntamiento van cogiendo otra dirección, y eso se va a ver pronto cuando se convoquen las subvenciones para promover el mantenimiento del empleo o para realizar inversiones o instalaciones. Estás últimas suponen un gran esfuerzo económico para este Ayuntamiento y en función de cómo resulten, si con ellas se consiguen los objetivos pretendidos o se aprecia la necesidad de actuar en otros ámbitos serán cuestiones que se tendrán en cuenta y por las que no se descarta sacar el año que viene otro programa de ayudas.

Nestor le indica que sabe de quien se ha dirigido al Ayuntamiento pidiendo material EPI y se ha tenido que ir sin nada.

Josu Ezkurdia le responde que no tiene conocimiento de ello, que en principio con el stock que hay se prevé atender las necesidades del propio ayuntamiento y las necesidades de terceros siempre que sean urgentes, y que en éste último caso no quiere decir que tenga que ser gratis.

Tras preguntar nuevamente Nestor Arana sobre si hay stock, Josu le responde que sí, pero que no sabe cuánto, y que la próxima vez, por cuestiones prácticas, quien fue donde ellos (se refiere a EH BILDU) quejándose porque no se le había facilitado material se dirija directamente a alguno de los concejales de su equipo para que pueda tener una respuesta a su queja.

**4.-MODIFICACION DEL PLAN ESTRATEGICO DE SUBVENCIONES 2019-2023**

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión celebrada el 17 de diciembre de 2019, adoptó el acuerdo de aprobar el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023.

Para poder poner en marcha algunas de las acciones prevista en el “Programa de reconstrucción COVID-19” aprobado por unanimidad por el Pleno de la Corporación en sesión del día 18 de junio de 2020, es necesario modificar algunas de las previsiones contempladas en el Anexo del referido Plan Estratégico.

Dichas modificaciones consisten en:

A.- AMPLIAR EL COSTE PREVISTO DE LOS SIGUIENTES PROGRAMAS

6. SUBVENCIONES PARA ASOCIACIONES QUE DESARROLLAN SU ACTIVIDAD EN EL AMBITO DE LA ACCION SOCIAL

7. PLAN DE EMERGENCIAS

8. BONOS PARA COMIDAS

9. SUBVENCIONES PARA EL TRATAMIENTO

10. BONOS DE COMPRA EN ESTABLECIMIENTOS COMERCIALES, HOSTELEROS Y DE SERVICIOS DE ESKORIATZA:

B.- CREAR NUEVOS PROGRAMAS DENTRO DE LAS SIGUIENTES LINEAS ESTRATEGICAS:

“LINEA ESTRAEGICA 3: ACCION SOCIAL “

5. JOSE ARANA: MEDIDAS DE HIGIENE Y PROTECCION ANTE EL COVID-19:

“LINEA ESTRATEGICA 6: FOMENTO EDUCACION “

6. “KONEKTATU” ZURE IKASTETXEAREKIN

“LÍNEA ESTRATÉGICA 7 : FOMENTO ECONÓMICO Y SOCIAL” :

7. ENPLEGUAREN BABESA COVID-19ak ERAGINDAKO SEKTOREETAN.

8. HIGIENE ETA BABES NEURRIAK COVID-19

Por lo anteriormente mencionado, se somete a votación la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda y con el voto a favor de todos corporativos presentes , el Pleno ACUERDA:

**PRIMERO.-** Ampliar el coste de los siguientes programas en las cantidades también a continuación indicadas:

6. SUBVENCIONES PARA ASOCIACIONES QUE DESAROLLAN SU ACTIVIDAD EN EL AMBITO DE LA ACCION SOCIAL: **+ 4000 euros** ( 8.700 €)

7. PLAN DE EMERGENCIAS: **+ 20.828 €** ( 55.828 €)

8. BONOS PARA COMIDAS: **+ 500 euros** ( 800 €)

9. SUBVENCIONES PARA EL TRATAMIENTO: **+ 2000 euros** (5.000€)

10. BONOS DE COMPRA EN ESTABLECIMIENTOS COMERCIALES, HOSTELEROS Y DE SERVICIOS DE ESKORIATZA: **+ 30.000 €** ( 36.000 euros)

**SEGUNDO.-** Crear los siguientes programas nuevos:

"LINES ESTRAEGICA 3: ACCION SOCIAL "

**K) DESCRIPCION DEL PROGRAMA: JOSE ARANA: MEDIDAS DE HIGIENE Y PROTECCION ANTE EL COVID-19:**

**DESTINATARIO:** Fundación José Arana

**OBJETO:** Financiar la adquisición de material para la implantación de medidas especiales de higiene y protección necesarias por la pandemia de la COVID 19.

**EFECTOS PRETENDIDOS:** La Fundación José Arana ofrece sin ánimo de lucro alguno un alojamiento alternativo a las personas mayores que, por determinadas circunstancias no pueden o desean continuar residiendo en su domicilio. Y, el Ayuntamiento de Eskoriatza considera de interés ayudar a la Fundación a cumplir tanto con la obligación de disponer de material de protección ante el COVID-19 como con las labores de desinfección que por su actividad le son exigidos.

**MODALIDAD DE LA CONCESIÓN:** Nominativa

**COSTES PREVISIBLES 2020:** 4.000- €

**FINANCIACION:** 0300.481.231.92.01

"LINEA ESTRATEGICA 6: FOMENTO EDUCACION "

**D) DECRIPCION DEL PROGRAMA: "KONEKTATU" ZURE IKASTETXEAREKIN**

**DESTINATARIOS:** Centros Educativos del municipio de Eskoriatza y alumnos empadronados en Eskoriatza que estén cursando sus estudios en los mismos.

**OBJETO:** Financiar la adquisición de terminales, conectividad a internet o ambos para que los alumnos de los centros educativos de Eskoriatza puedan cursar sus estudios telemáticamente ante un brote del COVID-19

**EFECTOS PRETENDIDOS:** Aliviar la brecha digital a los alumnos que acrediten encontrarse en situación de vulnerabilidad económica sobrevenida como consecuencia del COVID-19.

**MODALIDAD DE LA CONCESIÓN: nominativa o convocatoria pública, según procede**

**COSTES PREVISIBLES 2020:** 5.000- €

**FINANCIACION:** 0600.781.326.00.01 3000 € (terminales)

0600.480.326.00.01 2000 € (conectividad a internet)

"LÍNEA ESTRATÉGICA 7 : FOMENTO ECONÓMICO Y SOCIAL" :

**E) DECRIPCION DEL PROGRAMA ENPLEGUAREN BABESA COVID-19ak ERAGINDAKO SEKTOREETAN.**

**DESTINATARIOS:** Autónomos y empresas entre 1 y 20 personas contratadas con actividad económica y que se hayan visto afectados con la crisis provocada por el COVID-19

**OBJETO:** Apoyar la continuidad de las empresas con domicilio fiscal en Eskoriatza mediante la subvención de parte del coste de personal

**EFECTOS PRETENDIDOS:** Mantener el empleo en el municipio de Eskoriatza

**MODALIDAD DE LA CONCESIÓN: convocatoria pública**

**COSTES PREVISIBLES 2020:** 40.000- €

**FINANCIACION:** 0500.471.430.00.01

**F) DESCRIPCION DEL PROGRAMA** HIGIENE ETA BABES NEURRIAK COVID-19

**DESTINATARIOS:** Personas físicas de sectores del comercio, hostelería y restauración u otros que, por su actividad, atiendan a una elevada concentración de personas y/o tengan que desarrollar su actividad con plenas garantías de seguridad en materia de higiene y salubridad, dado que implica un contacto directo con las personas muy próximo y sostenido en el tiempo, de tal manera que aumenta significativamente el riesgo de su contagio.

**OBJETO:** Ayudar en la financiación de los gastos en inversiones relacionadas con las nuevas medidas especiales de higiene y protección a implantar en los establecimientos de atención al público por la pandemia COVID 19.

**EFECTOS PRETENDIDOS:** Garantizar la seguridad y salud de los trabajadores del establecimiento y el de sus clientes.

**MODALIDAD DE LA CONCESIÓN: convocatoria pública**

**COSTES PREVISIBLES 2020:** 18.651 - €

**FINANCIACION:** 0500.771.430.00.01

**5.- DEVOLUCION DE AVAL DEPOSITADO EN 2014: CONTRATO DE PRESTACION DEL SERVICIO DE CONSERVACIÓN, MANTENIMIENTO Y LIMPIEZA DE ZONAS VERDES, PARQUES, JARDINES Y ARBOLADOS DE PASEOS EXISTENTES EN EL TERMINO MUNICIPAL DE ESKORIATZA.**

Con fecha 23/12/2014 CESPA, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A. y ELAI SERBITZUAK S.L. (U.T.E.) depositaron aval emitido por BANCO SANTANDER S.A. en garantía del correcto cumplimiento de las obligaciones derivadas del contrato de prestación del servicio de PRESTACION DEL SERVICIO DE CONSERVACIÓN, MANTENIMIENTO Y LIMPIEZA DE ZONAS VERDES, PARQUES, JARDINES Y ARBOLADOS DE PASEOS EXISTENTES EN EL TERMINO MUNICIPAL DE ESKORIATZA, adjudicado por acuerdo plenario de fecha 27 de enero de 2015.

Con fecha 29/07/2020 solicitan se le autorice la cancelación de dicho aval.

Visto el Dictamen de la Comisión Informativa de Urbanismo y Medio Ambiente y con el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**Primero:** Autorizar la cancelación del aval nº1500/987.510 emitido por el BANCO SANTANDER S.A. a favor de CESPA, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A. y ELAI SERBITUZAK S.L. (U.T.E.) , por un importe de 5.339,56 € y en concepto de garantía del cumplimiento de las obligaciones derivadas del contrato de prestación del servicio de PRESTACION DEL SERVICIO DE CONSERVACIÓN, MANTENIMIENTO Y LIMPIEZA DE ZONAS VERDES, PARQUES, JARDINES Y ARBOLADOS DE PASEOS EXISTENTES EN EL TERMINO MUNICIPAL DE ESKORIATZA .

**Segundo:** Dar traslado del original de dicho aval a la propia interesada al objeto de que gestione la cancelación del mismo.

**6.- MODIFICACION DEL CONTRATO DE PRESTACION DEL SERVICIO DE LIMPIEZA DE DIVERSOS EDIFICIOS PÚBLICOS Y LOCALES MUNICIPALES DE TITULARIDAD DEL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA**

El contrato administrativo de servicios de limpieza de diversos edificios públicos y locales municipales de titularidad del Ayuntamiento de Eskoriatza fue formalizado en fecha 25 de marzo de 2.020 con la mercantil Hemen Garbiketak, S.L.U., por un precio de 138.052,60 euros, Impuesto sobre el Valor Añadido excluido, y con una duración de 1 año, con la previsión de poder prorrogar de forma expresa el referido contrato por un plazo de 4 años.

Considerando que en fecha 25 de marzo de 2020 fue formalizado el contrato administrativo de servicios de limpieza de diversos edificios públicos y locales municipales de titularidad del Ayuntamiento de Eskoriatza con la mercantil Hemen Garbiketak, S.L.U y atendido a que por parte de esta Corporación se ha constatado la necesidad de proceder a la modificación del citado contrato por las siguientes razones de interés público:

- Desde el Departamento de Educación del Gobierno vasco se ha establecido un "PROTOCOLO GENERAL DE ACTUACIÓN EN LOS CENTROS EDUCATIVOS de la Comunidad Autónoma de EUSKADI FRENTE AL CORONAVIRUS (SARSCoV-2), en el curso 2020-2021" así como "Medidas de prevención de riesgos laborales en los centros escolares de la CAPV ante el riesgo de exposición al COVID- 19 Curso 2020/2021".

- Desde el departamento de salud de Gobierno Vasco se han establecido unos "CRITERIOS SANITARIOS PARA LA APERTURA Y MANTENIMIENTO DE LAS INSTALACIONES DE PISCINAS TEMPORADA 2020.", así como sus posteriores actualizaciones.

- Desde el Ayuntamiento de Eskoriatza se han definido diversos planes de contingencia frente al covid-19 en los distintos edificios municipales.

Considerando que ante la necesidad de añadir servicios adicionales a los inicialmente contratados, concurren los dos requisitos siguientes:

1.- Que el cambio de contratista no sea posible por razones de tipo económico o técnico y, asimismo, que el cambio de contratista generara inconvenientes significativos o un aumento sustancial de costes para el órgano de contratación; y

2.- Que la modificación del contrato implique una alteración en su cuantía que no exceda, aislada o conjuntamente con otras modificaciones acordadas conforme al artículo 205 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público - LCSP 2017-, del 50% de su precio inicial, IVA excluido.

Ello es así por cuanto que:

1.- Con la entrada de otro contratista, sería muy difícil de realizar el seguimiento de los trabajos realizados por ambos en cuanto a su diferenciación, además de tener que gestionar la disposición de almacén y material de limpieza, llaves, responsabilidades, interlocución… y los precios han sido licitados entendiéndose que con competitivos.

2.- En cuanto a la modificación del contrato, la misma se estima en un 15,70%.

Considerando que se ha negociado con la empresa contratista las modificaciones exigidas ante la situación generada por la pandemia del COVID-19

Considerando lo previsto en los artículos 203 y siguientes de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público -LCSP 2017-, y en particular, el régimen de las modificaciones no previstas en el pliego de cláusulas administrativas particulares (art. 205 de la LCSP) tratándose de *modificación por circunstancias imprevisibles*.

Considerando que el órgano de contratación, en el presente contrato cuya modificación se propone, es el Pleno de la Corporación.

Visto el Dictamen de la Comisión Informativa de Urbanismo y Medio Ambiente y con el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**PRIMERO**.- APROBAR, con efectos a 1 de octubre de 2020, la modificación por circunstancia no prevista en el PCAP del contrato del servicio de limpieza de diversos edificios públicos y locales municipales de titularidad del Ayuntamiento de Eskoriatza consistente en añadir los siguientes servicios adicionales a los inicialmente contratados:

*Luis Ezeiza (edificio educación primaria): Realización de la limpieza y desinfección de: baños y zonas de paso, durante el recreo, mediodía y tarde-noche; 3 aulas indicadas por el profesorado, el salón de actos, el aula de acogida y el aula de aislamiento (cuando se utilice) a mediodía; y el resto de espacios por la tarde noche. Para estas labores se estiman 806,5 horas con un coste añadido de 19.126,95 euros (IVA incluido).*

*Luis Ezeiza (edificio educación infantil-biblioteca): Realización de la limpieza y desinfección de: baños y zonas de paso, durante el recreo, mediodía y tarde noche; aula de psicomotricidad a mediodía y el resto de espacios por la tarde noche. Para estas labores se estiman 198,5 horas con un coste añadido de 4.707,63 euros (IVA incluido).*

*Polideportivo: Realización de la limpieza y desinfección de: baños, vestuarios y zonas de paso a media mañana, mediodía y tarde noche; y el resto de espacios por la tarde noche. Para estas labores se estiman 205,5 horas con un coste añadido de 4.873,64 euros (IVA incluido).*

*EPA: Realización de la limpieza y desinfección de todo el local de lunes a jueves. Para estas labores se estiman 22 horas con un coste añadido de 521,75 euros (IVA incluido).*

*Antigua estación: Realización de la la limpieza y desinfección de baños, vestuarios y zonas de paso a diario. Para estas labores se estiman 59 horas con un coste añadido de 1.541,54 euros (IVA incluido).*

**SEGUNDO:** Aprobar los siguientes gastos correspondientes a los servicios adicionales que se imputan con cargo al Presupuesto del ejercicio 2020.

| EDIFICIO | APLICACIÓN PRESUPUESTARIA | IMPORTE |
|---|---|---|
| LUIS EZEIZA IKASTETXEA | 0100.227.323.40.01 | 9.347,84 (IVA incluido) |
| HAURESKOLA | 0100.227.323.30.01 | 2.324,41 (IVA incluido) |
| EPA | 0100.227.326.20.01 | 186,53 (IVA incluido) |
| UDAL BILTEGIA | 0100.227.153.40.01 | 545,67 (IVA incluido) |

| | | |
|---|---|---|
| KIROLDEGIA | 0100.227.342.20.01 | 1.980,05 (IVA incluido) |

**7.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

Nestor Arana manifiesta querer hacer una reflexión sobre una cuestión que ha observado en esta sesión y es que, a excepción de la secretaria, el resto de miembros sentados en la "Mesa" son hombres. Dice que a pesar de todo este asunto del COVID-19 no hay porqué olvidar la perspectiva de género e invita a las concejalas que por guardar las distancias sanitarias se ha sentado en la zona donde se coloca el público a que hagan ejercicio de su cargo.

Josu Ezkurdia le responde que el virus no conoce de géneros, que da la casualidad de que de los cuatro concejales de EH BILDU son 2 mujeres y ninguna de ellas está tampoco, que en el caso de su grupo están quienes están no porque son hombres sino por el cargo que ocupan, porque uno es el Alcalde y el otro, refiriéndose a él, es el portavoz , y que son cargos que se decidieron al inicio de legislatura; y en el caso del "Eskoriatzako ELizateak" porque es el único concejal del grupo.

Nestor Arana reconoce entender la situación si bien insiste que sirva de reflexión.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:20 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**